

## Ogia eta "per capita"

*Deia*, 1977-07-08.

"Per capita" latinetik omen dator.

Lehen apaizak noizean behin latinmordoilo bat sartzen ziguten bezala, gaurko ekonomilariak bereak sartzen dizkigute.

Itzalgarrri da nonbait.

Baina ez dakit latinmordoilo hoiek gauzak argitzeko baino argi dagoena izkutatzeke erabiltzen ez ote dizkiguten.

Gaur, herri baten aberastasun edo pobrezia adierazteko erabiltzen den "per capita" hontaz jardun nahi dut. Egunero esaten digute egunkariak "per capita" hau merio dela, herri bat behartsu edo aberats dela.

Batetik, aberastasuna ez da dirua.

Baina diruz ari bagara ere, ba da zer esana.

Gaur datorren berriak dionez, Suiza-ko banketxe batek egin du azterketa bat, eta azterketa honek erakusten duenez, munduan "per capita" herritik aberatsena Kuwait da; gero hauek datoz: Suiza, Suezia, Canada, Ipar-Amerika, Noruega, Dinamarca, Sartaldeko Alemania, Belgika eta Frantzia.

Sailketa honek zerbait esan nahi du noski.

Baina zer esan nahi du herri hoietako gizon, emakume eta haur bakoitzaren ongi izatea neurri bezala hartzen badugu?

Gauza bat da batez besteko edo promedio egiten den hau. Baina herri bateko batez besteko honekin ez du herri hontako pertsonak gosea, hotza eta beroa kenduko, estalperik egingo, jantzirik erosiko.

Jakin nahi nuke Kuwait-en lehengotasun famatu horrek zenbat aberastu dituen, eta aberats hoiek zenbaten bizkar bizi diren. Ekonomilariak aberastasunez ari direnean, egin behar ditugu, bada, gutxienez bi erreflexio: Zein aberastasunez ari diren, eta "per capita" latinmodoilo horren atzean zer izkutatzen den.

Gehienetan, injustizia.